



KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
Koordinaziorako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística
Dirección de Coordinación

EUSKARAREN ERABILERA EAEko SALTOKIETAN, TABERNETAN ETA JATETXEETAN (EMAITZEN SINTESIA)

Jon Aizpurua
Oñatin, 2005eko martxoaren 16an



Aurkezpena eta fitxa teknikoa

Saio honen helburua EAEn euskararen erabilerari buruz eginiko bi azterketako emaitza nagusiak batera aurkeztea da. Azterketei dagokienez, txikizkako saltokietan egin zen lehendabizikoa, eta jatetxe eta tabernetan bigarrena.

Azterketa bakoitza txosten banatan azterturik dago, eta orain aurkeztuko duguna batera hausnarturiko emaitza nagusien sintesia da.

Aztertu beharreko unibertsoa EUSTATen Enpresa eta Establezimenduen direktorioan jasota dauden 3.311 jatetxe eta 10.597 tabernek, hau da, ostalaritza sektoreko establezimendu guztien %92k, batetik, eta 16.340 txikizkako merkataritza-establezimenduk, hau da, sektorearen 50ek, osatzen dute.

Esan bezala, aztertutako unibertsoak txikizkako establezimenduen erdia baino zertxobait gehixeago hartzen du bere baitan, beraz lortutako emaitzak, hasiera batean behintzat, ez dira sektore osora estrapolatzeko modukoak. Dena den, txostenean aurrera egin ahala ikusi ahal izango denez, aztertutako lau jarduera-adarretan lortu den homogeneotasun erlatiboaren eta aipaturiko jardueren aski izate muturrekoaren eraginez (oro har euskararen erabilera urria), baliteke emaitza horiek txikizkako merkataritzaren sektore osora estrapolatu ahal izatea akats handiegirik egin gabe.

Emaitzak inkesta bidez jaso dira. Lagina 800 saltokik eta 500 jatetxek eta tabernek osatu dute. Erantzun-tasa handia izan da (%79 eta %80, hurrenez hurren).

Saltokietan eginiko azterketan, lau jarduera-adar aztertu dira: kopuruaren ikuspuntutik handienen artean bi (elikagaiak/edariak eta ehungintza/jantziak/oinetakoak) eta txikien artean beste bi (etxetresna elektrikoak/irratia/telebista/soinua eta papertegiak/liburu-dendak/egunkariak).

Jarduera-adar horiek, esan bezala, txikizkako merkataritza-establezimenduen erdia baino gehiago osatzen dute, eta jarduera-adarren araberrako emaitzak homogeneoak izan direnez, guztiak batera aztertuko dira. Jatetxeetan eta tabernetan, aitzitik, euskarari ematen zaion erabileraren artean ezberdintasunak daude. Hori dela eta, bereizirik aztertuko dira.



Ostalaritzari dagokionean, jarduera-adarrak bi izan dira: tabernak eta jatetxeak.

Emaitzak esplotatzeko orduan, laginak jarduera-adarrari, neurriari eta lurraldeari zegozkion aldagaietan zuen asignazio ez proportzionala zuzendu da, horretarako egokia den neurria erabiliz. Hori dela eta, txostenean aztertutako emaitzak bat datoz aldagai horiek unibertso horretan duten egiazko banaketarekin.

Emaitzak gurutzatzeko orduan, ondorengo aldagaiak hartu dira kontuan:

- Jarduera-adarra: aipaturiko jarduerak.
- Establezimenduaren neurria: langile 1 edo 2, 3-5 langile, 6-9 langile, eta 9 langile baino gehiago.
- Lurraldea: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa.
- Gune soziolinguistikoa: 4. gunea (euskaldunak %80 baino gehiago), 3. gunea (%45etik %80 arte), 2. gunea (%20tik %45 arte) eta 1. gunea (euskaldunak %20 baino gutxiago).

Hortaz, saltoki, jatetxe eta tabernei dagokien lagin osoa kontuan hartuz aztertuko dira emaitzak batetik, eta hiru kolektiboetako bakoitza bereizirik kontuan hartuz bestetik.

Establezimenduen ezaugarriak

Datuak aztertu ondoren, eta datu horiek aztergai dugun egiazko unibertsoarekin bat etor daitezten, jarduera-adarrei loturiko banaketa egin dugu. Modu honetan, establezimendurik gehienak elikagai/edariei dagozkienak (%47) nahiz ehungintza/jantzi/oinetakoei (%39) dagozkienak dira; liburu/egunkari/papertegi saltokiak, berriz, %9 baino ez dira eta etxetresna elektriko/irradi/telebista/soinu establezimenduak %6. Ostalaritzari dagokionez, laurdena, %24, jatetxeak, eta gainerako hiru laurden, %76, tabernak.

Neurriari dagokionez, gehienetan, (%88 saltokietan eta %76 ostalaritzan), pertsona batek edo bik bakarrik egiten dute lan (nagusia barne), %10 saltokietan eta %18 ostalaritzan dira hiru eta bost langile bitartekoak, %1 saltokietan eta %3 ostalaritzan sei eta bederatzi bitartekoak eta %1 saltokietan %3 ostalaritzan hamar edo gehiagokoak. Hortaz, establezimendu txikiak dira; oso txikiak gehienak.

**KULTURA SAILA**

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
Koordinaziorako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística
Dirección de Coordinación

Erdiak baino zertxobait gehiago Bizkaian daude kokaturik, hirutik bat Gipuzkoan eta gainerako hamarrena Araban.

Azkenik, %5 laugarren gune soziolinguistikoan daude, %20 inguru hirugarrenean eta beste horrenbeste bigarrenean; azkenik, gainerako erdia erdaldunena den lehenengoan.



Hizkuntza-gaitasuna

EAEko jatetxe eta tabernetan dagoen euskaldunen batez besteko portzentajea %26,6 da eta txikizkako dendetakoa %27,4. Baina, batez besteko portzentaje horren atzean, egoerak oso desberdinak dira:

- Ia hiru establezimendutik bitan, inork edo ia inork ez daki euskaraz (<%10).
- tabernen eta jatetxeen %8an eta saltokien %3an, erdiak baino gutxiagok (%10-40) daki euskaraz.
- Establezimenduen %12an gutxi gorabehera erdiak (%40-%60) daki euskaraz.
- %5ean erdiak baino gehiagok (%60-%90) daki euskaraz.
- Eta %14an guztiek edo ia guztiek dakite euskaraz(>%90).

Establezimendu gehienetan langile batek edo bik lan egiten dutela kontuan hartuz, logikoa da portzentajeak muturretan edo erdiko puntuan biltzea. (Konbinatoria hutsa)

Euskaldunek saltokietan duten batez besteko portzentajea ez da ia aldatzen jarduera-adarraren arabera. Ostalaritzan, berriz, euskaldunen batez besteko portzentajea ez da bera jatetxeetan eta tabernetan: %40 dira jatetxeetan eta %22 tabernetan. Bien arteko alde hori jatetxeak, batez beste, euskaldunagoak diren guneeetan kokatuta daudelako gertatzen da nagusiki.

Baina, euskaldunen batez besteko portzentajeari dagokionez, lurraldeka eta bereziki gune soziolinguistikoaren arabera gertatzen da bariaziorik handiena:

- Euskaldunak %45 inguru dira Gipuzkoako establezimenduetan, %20 Bizkaikoetan eta %10 inguru Arabakoetan.
- Eta %92tik gora dira 4. gune soziolinguistikoko establezimenduetan, %63 hirugarren gune soziolinguistikokoetan, %19 eta %24 bitartean bigarren gunekoetan eta %10 inguru lehen gunekoetan.

Irakurketa alderantziz eginez gero, inork euskaraz ez dakien establezimenduen portzentajea honakoa da:

OSTALARITZAN

- %40 Gipuzkoan, %67 Bizkaian eta %76 Araban.

**KULTURA SAILA**

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
Koordinaziorako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística
Dirección de Coordinación

- % 0 laugarren gunean, %21 hirugarrenean, %67 bigarrenean eta %77 lehenengoan.

SALTOKIETAN

- %44 Gipuzkoan, %72 Bizkaian eta %84 Araban.
- Eta %0 laugarren gunean, %29 hirugarrenean, %63 bigarrenean eta %84 lehenengoan.

Azkenik, establezimendurik gehienetan, bertan lan egiten duten ia pertsona guztiek bezeroekin jarduten dutenez, ia ez da alderik establezimenduan lan egiten duten pertsona guztien arteko euskaldunen portzentajea eta bezeroekin lan egiten dutenen artean. Antzemandako alderik esanguratsuenak jabetxeetan daude.



Euskararen erabilera ahozko komunikazioan

EAEko saltokietan, jatetxeetan eta tabernetan euskarari ematen zaion ahozko erabilera oso txikia da, 0 eta 10 bitarteko eskalan 1,5 puntukoa batez beste.

Erabilera hori, gainera, oso txikia da hiru kolektiboetan, nahiz eta jatetxeetako erabilera batez bestekoa baino nabarmen handiagoa den (2,3 puntukoa). Saltokietakoa, berriz, batez bestekoarekin bat dator, eta batez bestekoa baino txikiagoa da tabernetakoa (1,2 puntukoa).

Batez besteko 1,5 puntuko erabileraren arabera, establezimenduen %70ek ez dute euskara inoiz erabiltzen, %14k gaztelania erabiltzen dute gehiago, %7k hizkuntza bata eta bestea eta %9k euskara gehiago.

Inoiz euskara erabiltzen ez dutenak tabernen %77, saltokien %70 eta jatetxeen %49 dira. Euskara gaztelania baino gehiago erabiltzen dutenak, aitzitik, tabernen %7, saltokien %9 eta jatetxeen %12 dira.

Ahozko komunikazioan euskara hain gutxi erabiltzearen arrazoia establezimenduen %64an euskaraz dakienik ez egotea da. Zehatzago esateko, tabernen %68an, saltokien %64 eta jatetxeen %34 inork ez daki euskaraz.

Lehenago esan bezala, establezimendu gehienak oso txikiak dira, langile bakarrekoak edo bikoak, eta euskaldun-kopurua kontuan hartuz, logikoa da erdietan baino gehiagotan inork euskaraz ez jakitea. Jatetxeak, hein batean bada ere, arau horretatik kanpo geratzen dira. Izan ere, ez dira hain txikiak eta, horrez gain, gune euskaldunagoetan kokaturik egon ohi dira batez beste.

Beraz, establezimenduen neurri txikiak eta errealitate soziolinguistikoak establezimendu gehienetan inork euskaraz ez jakitea dakar eta, hortaz, hizkuntza hori inoiz ez erabiltzea. Azken batean, erabilera hein handi batean argitzen duen faktorea establezimendua kokatuta dagoen gune soziolinguistikoa da.



Euskararen erabilera idatzizko komunikazioan

Lehenik eta behin, idatzizko komunikazioari buruz dihardugunean errotulazioan, tiketetan eta fakturetan, kartan eta menuan, publizitatean, katalogoetan eta web-orrian erabiltzen den hizkuntzaz ari gara.

Azpiratu behar da oro har establezimendu gehienetan idatzizko komunikazioa gutxi erabiltzen dela eta kasu askotan errotulaziora eta tiket eta fakturetara mugatzen dela.

Saltokietan, jatetxeetan eta tabernetan euskararen batez besteko erabilera 2,2 puntukoa da 0 eta 10 bitarteko eskalan. Dena den, 0,7 puntuz gainditzen du ahozko erabilerari dagokiona.

Oraingoan ere, jatetxeetako erabilera (2,9 puntukoa) batez bestekoaren gainetik dago. Tabernetan eta saltokietan, berriz, txikixeagoa da; 2,1 eta 2,0 puntukoa, hurrenez hurren.

Batez besteko 2,2 puntuko erabileraren arabera, esan dezakegu establezimenduen %58k ez duela euskara inoiz erabiltzen, %19k esparruen erdietan baino gutxiagotan, %10ek erdietan, %5ek erdietan baino gehiagotan eta %8k beti.

Inoiz euskara erabiltzen ez dutenak tabernen %54, saltokien %63 eta jatetxeen %43 dira. Beti erabiltzen dutenak, berriz, tabernen %7, saltokien %8 eta jatetxeen %10 dira.

Gutziz bat ez badatoz ere, euskarari ahozko komunikazioan ematen zaion erabileraren eta idatzizkoan ematen zaionaren artean erlazio handia dago.

Bestalde, idatzaizko erabileran ere, establezimendua kokaturik dagoen gune soziolinguistikoak argitzen ditu, neurri handi batean, idatzizko erabileraren nondik norakoak.


Neurriari dagokionez, establezimendu handienetan erabiltzen da gehien euskara, baina aldea ez da oso handia: 3,2 puntu handienek eta 2,1 txikieneek.



Erabilera orokorra: ahozko eta idatzizko erabileraren tipologia

Euskarari ahozko komunikazioan eta idatzizkoan ematen zaion erabilera nahikoa erlazionaturik dago, baina bi komunikazio-mota horietan erabilera ez da homogenea. Izan ere, badira euskara ahozko komunikazioan erabili arren, idatzizkoan erabiltzen ez duten establezimenduak eta alderantziz egiten dutenak ere.

Ahozko eta idatzizko komunikazioan euskararen erabilerari dagokionez gertatzen diren konbinazioak ezagutzeko, erabileraren tipologia bat gauzatu dugu. Aipaturiko tipologia hori bederatzi establezimendu-taldek osatzen dute.



Grafikoan, ardatz horizontalak ahozko erabilera irudikatzen du, eta idatzizkoa bertikalak. Koordinatu-gunea erabilera-eskalaren erdiarekin dator bat, ahozko erabilerari dagokion 5arekin eta idatzizkoari dagokion 5arekin, hau da, ahozko komunikazioan euskara zein gaztelania maila berean erabiliko lituzkeen eta idatzizko komunikazioan euskara aldi edo esparru erdietan erabiliko lukeen establezimendu-motarekin. Zirkuluen neurriak talde bakoitzean den establezimendu-kopurua irudikatzen du.



Saltokien, jatetxeen eta tabernen erdiek ez dute inoiz euskara erabiltzen ez ahozko komunikazioan ezta idatzizkoan ere, eta lautik hiruk (hirugarren koadranteko ezkerreko beheko angeluan kokaturiko hiru taldeek) gutxi erabiltzen dute edota batere ez.

Beste muturrean, saltokien, jatetxeen eta tabernen %7k euskara erabiltzen du bai ahozkoan eta bai idatzizkoan ere.

Gainerako multzoak ahoz eta idatziz euskara gehiago edo gutxiago erabiltzen duten establezimenduek osatzen dituzte: saltokien, jatetxeen eta tabernen %17k.

Euskararen erabilerari emandako garrantzia

Hamar saltoki, jatetxe eta tabernetatik lauk (%42k) garrantziko jotzen dute euskararen erabilera bere establezimendurako. Jatetxeetan, dena den, hala pentsatzen dutenak gehiago dira, hau da, %60.

Nolanahi ere, establezimenduen %3k baino ez dute euskararen erabilera sustatzeko neurri edo arauen bat, kasurik gehienetan bezero euskaldunekin euskara erabiltzeko "gomendio" hutsera mugatzen dena, eta establezimenduen %6an bakarrik eskatzen da euskaraz jakitea langileak kontratatzeke orduan. Jatetxeei dagozkien portzentajeak handiagoak dira berriro ere: %7 dira neurri edo arauen bat dutenak eta %10 langileak kontratatzeke baldintza gisa euskaraz jakitea eskatzen dutenak.

Ondorioak

EAEko saltoki, jatetxe eta taberna gehienak oso establezimendu txikiak dira, langile bat edo bikoak, eta oso gutxi erabiltzen dute euskara, bai ahozko komunikazioan (0 eta 10 bitarteko eskalan, 1,5 puntu) eta bai idatzizkoan ere (2,2, puntu). Izan ere, hiru establezimenduetatik bitan, %64an, inork ez daki euskaraz.

Erdiak, gutxi gorabehera, ez du inoiz euskara erabiltzen eta lautik hiruk oso gutxi edota batere ez. Kontrako muturrean, beti edo ia beti erabiltzen dutenak %7 baino ez dira. Kolektiboen arabera, erabilera saltoki edo tabernetan baino pitin bat handiagoa da jatetxeetan.



Egunero euskara erabiltzen duten establezimenduek horretarako baldintza idealak dituzte: langile guztiak edo ia guztiak eta bezerorik gehienak euskaldunak, hain zuzen.

Gune soziolinguistikoarekin batera, saltokien, jatetxeen eta tabernen neurri txikiak ere garrantzi handia du euskararen erabileran, ez handiagoetan askoz gehiago erabiltzen delako, baizik eta gunerik erdaldunenetako langile bakarreko edo biko establezimendu gehienetan, logikoa denez, euskaraz inork ez dakielako (guztiaren %64an).

Azkenik, saltokien, jatetxeen eta tabernen %3k bakarrik du establezimenduan euskararen erabilera sustatzeko neurri edo araren bat.

Euskararen erabilera handitzeko hartutako neurriei dagokienez, establezimendu gehienak txikiak dira eta bezeroei begira bizi dira. Hori dela eta, ez da erraza langileen arteko euskararen erabilera eta bezeroekikoa bereiztea. Hortaz, honakoak izan daitezke jarduteko ildoak:

1. Idatzizko komunikazioan euskararen erabilera sustatzea. Egiteko honek ez dirudi oso zaila, establezimendu erdietan erabilera hori errotulaziora eta tiket eta fakturetara mugatzen baita; gainerako erdietan, neurri handi batean, horietan ez ezik publizitatean ere erabiltzen da, baita karta eta menuetan jatetxeetan eta tabernetan.
2. 3. gune soziolinguistikoko (euskaldunen portzentajea %45 eta %80 artekoa) establezimenduetan euskararen ahozko erabilera sustatzea. Izan ere, gune horretako establezimendu gehienek gutxieneko baldintzak betetzen dituzte edo horietara hurbiltzen dira (langile eta bezerorik gehienak euskaldunak dira), eta erabilera handitzeko tarte handia dute oraindik.

2. gune eta, nagusiki, 1. gune soziolinguistikoko establezimenduetan oso zaila da ahozko komunikazioan euskararen erabilera handitzea. Alde batetik, bezero euskaldunak gutxiengo dira eta, bestalde, establezimendu gehienetan inork ez daki euskaraz. Bigarren oztopo hori gainditzeko, langile euskaldunak kontratatzea litzateke aukera bat. Baina establezimendu horiek kontratazio gutxi egiten dituzte, eta euskara kontuan hartu gabe gainera. Langileek euskaraz ikastea litzateke beste aukera, baina establezimendu horietako ezaugarriak kontuan hartuz (euskararekiko duten interesa, neurria edo langileen batez besteko adina), ez litzateke batere erraza. Horrek ez du esan nahi, hala ere, ildo honetan lan egin behar ez denik.

**KULTURA SAILA**

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
Koordinaziorako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística
Dirección de Coordinación

Azkenik, jatetxeen baldintzak saltokienak eta tabernenak baino hobeak direla aipatu behar da. Euskaldunagoak diren gunetan kokaturik daude, langile euskaldunen portzentajea handiagoa da, ahozko zein idatzizko komunikazioan euskarari ematen dioten erabilera ere handiagoa da, handiagoak dira neurriz eta euskararekiko interes handiagoa dute. Horrez gain, irudiari dagokionez, saltokiak eta tabernak baino lotura handiagoa dute euskararekin.